


ELGEk txertaketa erritmoaren mende jartzen du susperraldia

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Covid-19aren aurkako txertaketa kanpainen garapenak, ekoizpenak eta hedapenak, eta pizgarri fiskalerako neurri berrien iragarpenak, bereziki AEBetan, eta ekonomiak pandemiaren azken olatuak geldiarazteko ezarritako murrizketetara hobeto egokitzeak aukera eman diote ELGERi bere aurreikuspen ekonomikoak gorantz berrikusteko, ia modu orokorrean.


Zehazkiago adierazita, martxoko txostenean, erakundeak aurreikusten du munduko BPGa %5,6 haziko dela 2021ean, hau da, 1,4 puntu hobetuko dela aurreko abenduko aurreikuspenekin alderatuta, eta hiru hamarren goratu duela 2022rako, azken hau %4,0an kokatu arte.

ELGEREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
Munduko ekonomia	-3,4	5,6	4,0	1,4	0,3
AEB	-3,5	6,5	4,0	3,3	0,5
Eurogunea	-6,8	3,9	3,8	0,3	0,5
Alemania	-5,3	-3,0	3,7	0,2	0,4
Frantzia	-8,2	5,9	3,8	-0,1	0,5
Italia	-8,9	4,1	4,0	-0,2	0,8
Erresuma Batua	-9,9	5,1	4,7	0,9	0,6
Kanada	-5,4	4,7	4,0	1,2	2,0
Japonia	-4,8	2,7	1,8	0,4	0,3
Txina	2,3	7,8	4,9	-0,2	0,0
India	-7,4	12,6	5,4	4,7	0,6
Brasil	-4,4	3,7	2,7	1,1	0,5

AEBETAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

EUROGUNEKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

ALEMANIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Hala ere, ELGEk badaki proiektzioak txertaketaren abiadurak baldintzatzen dituela, eta, beraz, ez ditu baztertzen beste eszenategi batzuk. Hala, mundu osoan txerto eraginkorrak ezartzen azkarrago aurrera eginez gero, murrizketak kentzeko prozesua bizkortu egin daiteke, konfiantza eta gastua suspertu, eta munduko ekoizpena pandemia aurreko mailetara hurbildu. Horrela, 2021eko hazkundearen aurreikuspena %7,0ra eta 2022koa %5,0ra igoko litzateke.

Aitzitik, aurrerapena motelagoa izateak edo txerto-
ei aurre egiten dieten birusaren mutazio berriak
agertzeak konfiantzan eragingo luke, gastua motel-
duko luke eta ekonomia ahulduko luke, eta, aldi
berean, enpleguen galera eta enpresen porrota
areagotuko luke. Kasu horretan, 2021eko susper-
raldia %4,5era mugatuko litzateke, eta 2022an,
berriz, %2,7ra. Horrek, oro har, pandemiaren aurre-
ko irakurketen azpitik mantenduko luke jarduera
maila, denbora tarte luze batean.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.